

ESG irizpideetan aditua

ESG irizpideak enpresa- eta finantza- kudeaketan txertatzeko gakoak

Edizio berria (2026ko apirila - maiatza)

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko
Unibertsitatea

Egitarau zehatza, datak eta ordutegia

MIKROKREDENTZIALA

MODALITATEA
Online

HIZKUNTZA
Gaztelania

KREDITU KOPURUA
4 ECTS kreditu

PREZIOA
400 €

AURKEZPENA

Enpresa-eta finantza-arloko egungo erronka nabarmenetako bat inbertsio sozialki arduratsua eta ESG irizpideak (ingurumenekoak, sozialak eta gobernantzakoak) aplikatzea da. Errealitate horrek antolakuntza-berregituraketa eskatzen die erakundeei, bai eta ESG arriskuen kudeaketa maila guztietan (estrategikoan, gobernantzan eta operatiboetan) integratuko duten funtzioak esleitzea ere. Horren ondorioz, arlo horretan prestakuntza sendoa duten profesionalen eskaria gero eta handiagoa da.

Ikastaro hau diseinatu da ESG faktoreak enpresa- eta inbertsio-erabakietan integratzerakoan ezagupen integrala eskaintzeko. Egungo praktika onenetan eta nazioarteko araudietan oinarrituta, ikastaroak ikasleak prestatzen ditu jasangarritasunaren erronkei aurre egiteko hainbat sektoretan, banka eta finantzen ikuspegi berezi batekin.

Ikastaroak ESG aztertzeko eta reporting egiteko funtsezko arloak jorratzen ditu, bai eta horiek inbertsio-prozesuan integratzeko ere. Gainera, ESG arriskuak eta aukerak kudeatzeko, estrategia jasangarriak ezartzeko eta nazioarteko arau ezberdinei erantzuteko tresna praktikoa eskaintzen ditu.

Erosketa jasangarri eta arduratsuetan jartzen du arreta, hornikuntza-katean behar den arreta berezia jarritz. Aldaketa ugari eta araudi zorrotza duen testuinguru global batean, enpresek aurre egin beharreko erronkei helduko zaie, hornidura-kate erresistenteagoak eta eraginkorragoak eraikitzeke asmoarekin.

Hornidura-kate globalen erronka nagusiak eta hainbat sektoreetako enpresak ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-arriskuak identifikatzeko eta murrizteko hartzen ari diren estrategiak eztabaidatuko dira. Korporazio handien eta haien ikuspegi berritzaileen kasuak aztertuko dira. Gainera, egungo gaiak jorratuko dira, hala nola karbono-aztarnaren neurketa eta murrizketa, trazabilitatea, eta reshoringa.

Ikastaroak ikuspegi praktikoa izango du, eta teknologiak hornidura iraunkorragoa sustatzeko duen garrantzia azpimarratuko da.

Kasu praktiko bat jorratuko da ere. Bertan ESG irizpideen eragina inbertsio erabakietan eta hornidura kateko arriskuen balorazioan kontuan hartuko da; erosketa programa jasangarria diseinatuko da.

Eremu profesionalean beharrezkoak diren nazioarteko ziurtagiriak lortzeko baliagarria da ere.

NORI ZUZENDUA

Jasangarritasuna beren txostenetan eta inbertsio-erabakietan txertatu behar duten finantza-sektoreko profesionalei, auditoreei, aholkulariei eta analistei, eta jasangarritasun-irizpideen eta hornidura-katearen aplikazioarekin lotutako enpresetako sailetan lan egiten dutenei, hala nola erosketa-, logistika- eta kalitate-sailetan ari diren profesionalei.

IRAKASTORDUAK ETA MATRIKULA

4 ECTS kreditu (100 orduren baliokidea)

Prezioa 400 €

Matrikula: <https://mikrokredentzialak.ehu.eus/es>

HELBIDEA ETA KONTAKTUA

Belén Vallejo Alonso

belen.vallejo@ehu.eus

94 601 3871

Idoia Idigoras Gamboa

idoia.idigoras@ehu.eus

94 601 3862

EHUko Finantza Ekonomia II Saila

Ekonomia eta Enpresa Fakultatea

Agirre Lehendakariaren etorbidea, 83, 48013 Bilbo

IKASTARO EGUNAK ETA ORDUTEGIA

Ikastaroa astearte eta ostiraletan online emango da, 17:30etatik 20:30tara, hurrengo egunetan:

2026ko APIRILA						
L	M	X	J	V	S	D
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

2026ko MAIATZA						
L	M	X	J	V	S	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

IRAKASLEAK

Raquel Vallejo Vigistain Analista Financiera-BBVA. *EFA, EFA ESG y CESGA*

Euskal Herriko Unibertsitateko UPV/EHU Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan graduatua eta Ondarearen Kudeaketa eta Banka Pribatua graduondokoa graduatua. Norwealth Capitaleko inbertsio-sailean lan egin du, erakundearen jasagarritasun-estrategiak erabakitzen ziren lekuan. Gaur egun, Hong Kongeko BBVAko Finantza Analista gisa lan egiten du. CESGA eta EFA ESG ziurtagiriak ditu.

Jaime Rúa Tavira -EiQ Customer Success Manager - ESG Analytics, LRQA Hong Kong

Ingeniari industrial naiz, mater bikoitza egin nuena, Kataluniako Unibertsitate Politeknikoan energia espezialitatean masterra eta Milango Unibertsitate Politeknikoan International Business masterra. Nire ibilbide profesionala Italian hasi zen, eta han aritu nintzen bankuentzako eta energia-enpresentzako arriskuen aholkularitzan. Ondoren, enpresa teknologiko batera mugitu nintzen hornikuntza-kateko arrisku-sektorerara, eta bertan bezeroen kudeaketan eta

produktuaren garapenean aritzen nintzen. Enpresa multinazionalentzako arrisku-ereduak diseinatzeko genituen, mota guztietako arriskuak barne, baina, batez ere, ESGn zentratuta.

Gaur egun, LRQAKo ESG data analytics-en taldean nago. APACen bezero-arloko arduraduna naiz, EiQ dibisioan. Bertan, enpresa global handi askori laguntzen diegu beren hornidura-katearen gizarte- eta ingurumen-arriskuak identifikatzeko, arintzeko eta konpontzeko.

Beatriz Turiel García- Responsible for Strategy CIB in Asia in BBVA SA

Beatriz is responsible for Strategy CIB in Asia in BBVA SA, she has previously worked for BBVA in Spain and Mexico building a solid expertise in Advising BBVA's Corporate clients through Data and Research, to help them improve their Working Capital Ratios and Advising them on their ESG transition. In her previous experience, Beatriz worked in Strategy & Operations Consulting in different projects both in Mexico and Spain, for different financial institutions, helping them in diverse areas: Global Markets, Reporting, Data Quality, Business Process Engineering, etc. Beatriz holds two degrees from Autonomous University of Madrid (Madrid, Spain) both in Law and Business, and a Masters in Business Consulting from Comillas Pontifical University (ICADE) (Madrid, Spain), she also participated in a 6 month program in Economics & Finance in City University Hong Kong (Hong Kong, China) and a year in a Masters of Science (M.Sc.) in Business from Grande École de Management de Lyon Business School (EM Lyon), (Lyon, France).

IRAKASKUNTZAREN EMAITZAK

- 1. Funtsezko kontzeptuak menperatzea:** Parte-hartzaileak gai izango dira iraunkortasunaren eta inbertsio sozialki arduratsuaren (ISR) funtsezko kontzeptuak identifikatzeko eta aplikatzeko, enpresa- eta finantza-eremuan duten garrantzia ulertuta.
- 2. ESG aztertzeako trebetasuna:** Ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-irizpideak ebaluatzeko beharrezkoak diren gaitasunak eskuratuko dituzte, eta horiek erabaki estrategikoak hartzean eta inbertsio-prozesuan nola integratu ulertuko dute.
- 3. Araudiei eta arau-esparruei buruzko ezagutzak:** Nazioarteko araudi garrantzitsuenak interpretatzeko eta aplikatzeko gai izango dira, Europako araudia (CSRD, SFDR) eta reporting-estandarrek (GRI, SASB eta TCFD) barne.
- 4. Estrategia iraunkorrek diseinatzeko gaitasuna:** Bertaratzeko diren pertsonen hainbat sektoretan eta aktibo-motatan aplikatutako ESG estrategiak formulatu ahal izango dituzte, errenta aldakorrek, bonu berdeetako eta kapital pribatuko inbertsioak barne.
- 5. Ziurtagiriatarako prestakuntza:** Ikastaroak oinarri sendoa emango du parte-hartzaileek nazioartean onartutako ziurtagiriak eskuratu ahal izan ditzaten, hala nola kudeaketa jasangarriarekin eta ESG estandarrekin lotutakoak.
- 6. Inpaktu positiboa sortzeko trebetasuna:** ESG "value drivers" -ak identifikatzeko eta neurtzeko gai izango dira, eta erakundearen jasangarritasunean duten eragina aztertuko dute, epe luzerako balioa sortzea sustatuz.
- 7. Jasangarritasunaren ikuspegi integrala hornidura-katean:** Jasangarritasuna hornidura-katearen kudeaketan nola integratu behar den ulertzea. Enpresa aitzindariak ezartzen ari diren estrategia nagusiak zeintzuk diren irakatsiko da. Horrela parte hartzaileek erosteko jasangarrien programa diseinatzeko oinarritzko nozioak lortuko dituzte, ESG irizpideei lotuta, noski.

IKASTAROAREN EGITARAUA

- 1. Jasangarritasunaren oinarriak**
 - 1.1 Jasangarritasunaren sorrera eta bilakaera
 - 1.2 Nazio Batuen Erakundeko erronkak
- 2. Arauak eta borondatezko ekimenak**
 - 2.1 Europar Batasunaren ekintza-plana
 - 2.2 Erregulazio orokorra.
 - 2.3 Araudiaren eragina hornidura-katean.
 - 2.4 Eskualde ezberdinetako arau ezberdinak eta horien arteko harremanak
 - 2.5 Arautegia Finantza sektorean
- 3. ESG Reporting**
 - 3.1 Txostenak egiteko esparruak eta estandarrak
 - 3.2 Materialtasuna
- 4. Hornidura-katearen Jasangarritasuna.**
 - 4.1 Hornidura-katearen kudeaketa arduratsuaren hastapenak
 - 4.2 Joera eta erronka nagusiak
 - 4.3 Hornidura-katearen gardentasuna eta trazabilitatea
 - 4.4 Behar bezalako arretaren ikuspegi praktikoa
 - 4.5 Erosketa arduratsuen programa diseinatzea
- 5. Inbertsio Jasangarrirako estrategiak**
 - 5.1 ESG Inbertsioa. Non gaude?
 - 5.2 ESG Estrategiak
 - 5.3 Datuen hornitzaileak, erreferentziazko indizeak eta ESG analisia
- 6. Inbertsio Jasangarria finantza mota ezberdinetan.**
 - 6.1 Errenta Finkoa
 - 6.2 Errenta Aldakorra
 - 6.3 Kapital pribatua
- 7. ESG sektore finantzarioan**
 - 7.1 Bankuen papera ekonomia jasangarrirako trantsizioan
 - 7.2 Iraunkortasunaren eragina enpresaren kapital-kostuan
 - 7.3 Supply chain finance – sektorearen erreferentzia-programak eta bilakaera.
- 8. Adibide praktikoak**
 - 8.1 ESG irizpideak integratzea inbertsio-erabakietan.
 - 8.2 Hornidura-katearen arriskua aztertzea eta erosketa arduratsuko programa bat diseinatzea.